

GURASOENTZAT GOMUTAGARRIA

1898-ko Zezeillaren 4 an

Albinacho Gabiola ta Milikuari lenengo urtea beteriko egunean

Gaur urte bete zure echean
 Agertu ziñan izarra,
 Zuri begira zorutzen dira
 Pozarren aita ta ama;
 Zarealako euren biotzen
 Maite, kutun ta lastana;
 Zarealako euren atsegiñ,
 Ta gozotasun bakarra,
 Illgo baziña begietan ¿noz
 Geratu biai negarra?

Egun bat legez, irago jakez
 Irureun baño geyago;
 Mundura agertu ziñan ezker
 Eurentzat gaurik eztago;
 Zure echean ez da gozetan

Gaur beti eguna baño;
 Zure begiak direalako
 Izarrak baño izarrago,
 ¿Zelan zu aztu ¡o! Albinacho
 Aitamai noz zinan jayo?

Gaur legez urte askotan izan
 Zaitte echeko gloria,
 Daukazulako zerutar baten
 Antz ta irudi bizia;
 Urregorritzko ulleak dozuz,
 Larrosazkoa arpegia;
 Egoak goyan icheta aurki,
 Zara lurrera jatsia,
 ¡O! aragizko aingeru eder
 Albina zoragarria!

*
 *

1808 -Ro Zemendiaren 15-an ill zan Albinachori

Aurkitu baldin bere ezpaneban
 Nik kantetean zugaiti,
 Bertan egoak ichita jatsi
 Ona ziñala Zeruti;
 Aurkitu neban baña zer eingo

Zan zure echean ikusi,
 Illten bazinan atsekabea
 Eginda bertako nausi;
 Zure aitamak beti negarrez
 Bearko ebela bizi.

Ederregia zinealako
 Nik artu neutsun bildurra,
 Bizilekutzat ezetorrela
 Zuretzat egogi lurra;
 Nire bildurrak oraiñ dirudi
 Zala benetan ziurra,
 Ta apurtu arren aitari legez
 Amari biotz samurra,
 Negarrez biak urtzen ichita
 Igeš deutsezu zerura.

Ikusitean zala mundu au
 Sentimentuzko erria,
 Igarri zeuntsan au egoala
 Danau arantzaz josia;
 Eta bakarrik zelan gustetan

Jatzun alegerezia;
 Urte bi baño len nai zenduan
 Eten ekizun bizia;
 Izan zintezan igorik gora
 Zeruetako choria.

Bai, Albinacho, jarichi dozu
 Gura zenduan guztia,
 Jarichi dozu beti berderik
 Loratsua dan Erria;
 Jarichi dozu or izatea
 Egazti kantalaria,
 Kerubiñakin naste emoteko
 Jaungoikoari gloria,
 Amairik baga bizi dalako
 Bertanche udabarria.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

ETIMOLOGÍA DEL NOMBRE DE RONCESVALLES

(EN BASCUENCE ORREAGA)



I

En el latín raro de los cartularios, Roncesvalles es nombrado *Roscida vallis*, cuyo sentido es «valle rociado». El francés antiguo *Rescenvals*, *Roncesval*, *Renceval*, *Roncivals*, *Renchevax*, *Roncevax*, etc., el francés moderno *Roncesvaux*; el español *Roncesvalles*; el portugués *Roncesvalhes* el italiano *Roncivalles*; se asemejan en cuanto á la forma, y todos conducen á la idea del «valle» ó «valles de zarzas, ú otro cualquier arbusto espinoso», y concuerdan en el sentido con el nombre bascongado *Orreaga* que se da á este pueblo. Pero se diferencian de tal modo de *Roscida vallis*, en el otro sentido,